Arestian aipatu bezala, modu legezkoan 94 dira gaur egun Getxon ditugun etxebizitza turistikoak. Udalerri mailan arauketa propiorik ez dugunez 101/2018 Dekretuak ezarritako betekizunak errespetatzea nahikoa da jarduera hau aurrera eramateko. Hortaz, 25 metrotik gorako azalera erabilgarria duen edozein etxebizitza bideratu daiteke jarduera turistikora bizitoki erabilera baldin badu. Hots, edozein solairutan garatu

Como hemos mencionado anteriormente, son 94 las viviendas turísticas que tenemos hoy en día de forma legal en Getxo. Como no disponemos de regulación propia a nivel municipal, respetar las condiciones impuestas por el Decreto 101/2018 es suficiente para poder realizar dicha actividad. Por ello, cualquier vivienda que disponga de una superficie utilizable mayor de 25 metros puede destinarse a actividad

daiteke negozio hau eta ez da irisgarritasun betebeharrik bete behar.

turística si es de uso residencial. Por lo tanto, dicho negocio puede llevarse a cabo en cualquier planta, y no hace falta cumplir con condiciones de accesibilidad.

Udal arauketa espezifikorik egon ezean jarduera hau debekatzeko modu bakarra da Jaurlaritzako Erregistroan etxebizitza inskribatu aurretik Jabego Komunitate bakoitzak jarduera debekatu izana eta debeku hori bere estatutuetan jaso izana Jabetza Erregistroan debekua formalki inskribatuz. Baina azken hau ezjakintasunagatik gutxitan gertatzen da eta auzokideek erreakzionatzen dutenerako beranduegi da etxebizitza turistikoa jada Erregistroan inskribatuta dagoelako, ez baita komunitatearen baimenik behar jarduera hasteko.
Bizikidetza aldetik sor daitezkeen eragozpenak handiak dira. Segurtasun falta sentsazioa ezezagunak portaletik gora eta behera ikusterakoan, zaratak gaueko ordu txikitan, bizitza erritmoa ez baita berdina goizean goiz lanera joan behar duzunean edo oporretan zaudenean…
Horren ondorioz udalerri askok erabaki izan dute etxebizitza turistikoak soilik jar daitezkeela bizitoki erabilera duen lehenengo solairuan. Hau da, horietan ezin izango da sekula jarduera garatu etxebizitza baten gainean.

La única forma de prohibir esta actividad en ausencia de regulación municipal específica es que previamente a la inscripción de la vivienda en el Registro del Gobierno, cada Comunidad de Propietarios haya prohibido la actividad y que dicha prohibición haya sido recogida en sus estatutos mediante la inscripción formal de la prohibición en el Registro de la Propiedad. Pero esto último rara vez ocurre, por desconocimiento, y para cuando los vecinos reaccionan suele ser demasiado tarde, porque la vivienda turística ya se encuentra inscrita en el Registro, ya que no se necesita permiso comunitario para iniciar la actividad.
Pueden surgir grandes molestias en cuanto a la convivencia. Sensación de falta de seguridad al ver a desconocidos subiendo y bajando en el portal, ruidos nocturnos (ya que el ritmo de vida no es el mismo cuando se debe acudir a trabajar por la mañana temprano que cuando se está de vacaciones)...
En consecuencia, varios municipios han decidido que las viviendas turísticas solamente podrán estar en primeras plantas con uso residencial. Es decir, en esos casos la actividad nunca podrá ejercerse encima de una vivienda.

Horregatik guztiagatik Getxoko Udalbatzari honako erabaki proposamena luzatzen diogu:

Por todo ello, remitimos la siguiente propuesta de acuerdo ante el Pleno del Ayuntamiento de Getxo:

1. Udal teknikariek gaia behar bezala aztertu eta arauketa proposamena egin dezatela jokoan dauden interes ezberdinak batu daitezen. Hots, etxebizitza eskubidea, auzokideen eskubideak eta jarduera ekonomikoa garatzeko eskubidea.

1. Que el personal técnico estudie adecuadamente la cuestión y realice una propuesta de regulación que aúne los distintos intereses en juego. Es decir, el derecho a la vivienda, los derechos de los y las vecinas y el derecho a ejercer la actividad económica.



Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/02/25 Fecha: 25/02/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/02/26 Fecha: 26/02/2021

Getxo UDALA · AYUNTAMIENTO
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/02/25 Fecha: 25/02/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/02/26 Fecha: 26/02/2021

2. Getxo etxebizitza turistiko erraldoia bilakatu ez dadin, administrazio publikook daukaguzan tresnak, araudiak… erabiltzea beste uri batzuetan garatutako neurriak aztertzeko eta gure errealitatera egokitzeko, Getxokora, geurera.

2. Con el objetivo de que Getxo no se convierta en vivienda turística gigante, las administraciones públicas disponemos de herramientas, utilización de normativas para analizar las medidas desarrolladas en otros municipios y adaptarlas a nuestra realidad, la de Getxo, la nuestra.

3. Gure udalerriko gune historikoa den Portu Zaharraren bizitza bermatze aldera mekanismoak aurreikusi ditzatela jarduera ekonomiko honek auzoa ito ez dezan.

3. En aras de garantizar la vida del Puerto Viejo, zona histórica de nuestro municipio, prever mecanismos encaminados a que la mencionada actividad económica no ahogue al barrio.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Mikel Bildosola
Irantzu Uriarte
Carolina Uribe
Carmen Díaz
F.Javier Elorza

**PROPOSAMENAREN BOZKETA/VOTACIÓN PROPUESTA**

BAI/SI: 20 (PNV, EH Bildu, PSE-EE, Elkarrekin Podemos)
EZ/NO: 5 (pp)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN:

10:55an, alkateak osoko bilkura eten du, bilkura-aretoa aireztatu ahal izateko.

Siendo las 10:50 horas la Alcaldesa suspende el pleno para que se pueda airear el salón de sesiones.

11:06an ekin zaio berriro bilkurari.

Siendo las 11:06 horas se reanuda la sesión.

**10.- GETXO-EH BILDU ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: SAN MARTINEKO ERAIKINA BIRGAITZEKO ETA ERABILERA EMATEA.**

**10.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/ LA REHABILITACIÓN Y UTILIZACIÓN DEL EDIFICIO DE SAN MARTÍN**

Gehiengoz, honako mozio hau onartu da:

Por mayoría se aprueba la siguiente moción:

Ez dira gutxi udalak dituen ondare jabetzak. Zoritxarrez, horietako batzuek ez daukate egun erabilera propiorik, hortaz, denboraren joanaz horietako

El Ayuntamiento dispone de varias propiedades patrimoniales. Por desgracia, algunos de ellos hoy en día no disponen de uso propio. En

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/02/25 Fecha: 25/02/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/02/26 Fecha: 26/02/2021

asko hondatzen ari dira. Erabilera ezak dakar kasu askotan mantenurik edota gaurkotze lanik ez egitea horietan, eta era berean, epe ertain zein luzean eraikinaren beraren narriadura.
Beraz, hondatze kasu horiek saihesteko biderik egokiena zera da; eraikinak erabiltzea. Zerbitzu ezberdinak eskaintzea horietan, bide batez, horiek mantenduz eta beharrezko inbertsioak eginez. Urteetan erabili gabeko, utzitako, espazioen atontzeak eta birgaitzeak askoz ere inbertsioa handiagoa behar ei du, egunerokotasunean erabiltzen diren horiek baino.

consecuencia, muchos de ellos están en proceso de deterioro por el paso del tiempo. La falta de uso conlleva en muchos casos que no se realicen trabajos de mantenimiento o actualización, lo cual provoca el deterioro del edificio a medio o largo plazo.
Por ello, la manera mas adecuada de evitar dichos casos de deterioro es darles uso a los edificios. Ofrecer distintos servicios en ellos y, al mismo tiempo, realizar el mantenimiento y las inversiones necesarias. El acondicionamiento y la rehabilitación de edificios abandonados o inutilizados durante años necesita una inversión mucho mayor que la de los edificios que se utilizan en el día a día.

Lehenengo kasu baten aurrean gaudela esan dezakegu, San Martineko eraikinaren inguruan hitz egiten dugunean. Urteak igaro dira jada Getxolanek eskaintzen zuen zerbitzua emateari utzi zuenetik, eta ordutik hutsik egon da, erabilerarik gabe, mantentze lanik gabe, berrizte lanik gabe. San Martin eraikina gure herriko eraikin mitikoa izateaz gain, Algortako bihotzean dago, erdigunetik gertu, hortaz, leku egokian dago edozein udal zerbitzu bertan eskaini ahal izateko. Dagoeneko eskaintzen diren zerbitzuak bertan kokatu ez ezik, badira beste aukera batzuk ere espazioari bizia eta behar duen eguneratzea eman diezaiogun. Espazioak daukan ezaugarritzeari begira, aukera egokiena topatu daiteke; izan daiteke Herritarren Zerbitzurako Bulegoa, Torrenekoa bertara eramatea, edota izan daiteke Arte Aretoa egokitze lanak egin ondoren, edota izan daiteke herri honetako Mugimendu Feministak sarri eskatutako Emakumeen Etxea.

Si hablamos del edificio San Martín podemos decir que se trata del primero de dichos casos. Han pasado años desde que Getxolan dejara de ofrecer su servicio, y desde entonces ha estado vacío, sin uso, sin trabajos de mantenimiento y sin trabajos de renovación. El edificio San Martín, además de ser un edificio mítico de nuestro municipio, se encuentra en el corazón de Algorta, próximo al centro. Por ello, es el sitio adecuado para poder ofrecer cualquier servicio municipal. Además de situar en dicho emplazamiento servicios que ya se vienen dando, existen otras opciones para dar vida y actualizar el espacio. Teniendo en cuenta las características del espacio, podría buscarse la mejor opción: podría ser una Oficina de Servicios para la Ciudadanía, podría trasladarse Torrenekoa, podría ser una Sala de Arte (tras realizar las labores de adecuación) o podría ser la Casa de las Mujeres que tantas veces ha solicitado el Movimiento Feminista del municipio.

Hamaika erabilera izan ditzake San Martineko etxe zuriak, hamaika

La casa blanca de San Martín puede tener infinidad de usos y puede ser

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/02/25 Fecha: 25/02/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/02/26 Fecha: 26/02/2021

proiekturen etxea izan daiteke. Horrela, lortuko genuke eraikinak hiltzen ez uztea, mantenurik gabe erortzera ez kondenatzea. Horrela saihestuko genuke hamar urte barru eraikina eraitsi behar ez izatea, agian dirutza inbertitu behar delako egiturazko arazoak izango dituelako. Orain garaiz gabiltza getxoztar ororen ondarea babesteko eta espazio orok beharko lukeen bizitza emateko. Hau guztia aintzat hartutik, honakoa da Getxoko Udalbatzak onartzen duen akordioa:

1. Epe labur, ertainean San Martineko eraikinak jaso ditzakeen edota jaso ahalko lituzkeen jarduerak aztertzea.

2. San Martineko espazioak jarduera berria eskaintzeko egin beharreko birgaitze zein egokitzapenak gauzatzea epe ertain batean.

sede de infinidad de proyectos. De esa manera, lograríamos no dejar morir al edificio, no condenarlo a caerse por falta de mantenimiento. Lograríamos así evitar el tener que demoler el edificio dentro de diez años, ya que quizás habría que invertir un dineral porque tendrá problemas estructurales. Estamos a tiempo de proteger el patrimonio de los y las getxotarras y de darle la vida que todo espacio necesita. Tomando en cuenta todo ello, el Pleno del Ayuntamiento de Getxo aprueba el siguiente acuerdo:

1. Estudiar las posibles actividades que pudiera albergar el edificio San Martín a corto o medio plazo.

2. Realizar a medio plazo las labores de adecuación y rehabilitación necesarias para que el espacio San Martín pueda ofrecer la nueva actividad.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Nerea Guijarrubia
Carolina Uribe
Gonzalo Ayo
Eduardo Andrade
Iñigo Urkitza

**PROPOSAMENAREN BOZKETA/VOTACIÓN PROPUESTA**

BAI/SI: 6 ( EH Bildu, Elkarrekin Podemos)
EZ/NO:
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 19 (PNV, PP, PSE-EE)

**11.- GETXO-EH BILDU ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: UDAL OPERADORE ELEKTRIKOAK SORTZEA.**

Gehiengoz, honako mozio hau atzera bota da:

Energiarekin hainbat alternatiba bultza daitezke tokiko esparrutik jasangarritasunean, baliabideen kontrol

**11.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/ CREAR OPERADORES ELÉCTRICOS MUNICIPALES.**

Por mayoría se rechaza la siguiente moción.

Mediante la energía se pueden impulsar varias alternativas para avanzar desde el entorno local en un

eta kudeaketa publikoan eta herritarren parte-hartzean oinarritutako energia-eredurantz joateko. Ekoizpenaren ikuspegitik, energia berriztagarrien pisua handitu behar da, baita energia-kontsumoa mailaka murriztu ere. Hori dela eta, hainbat herritan egiten ari diren proposamenetako bat udal operadore elektrikoak sortzea da.

modelo energético basado en la sostenibilidad, en el control y en la gestión pública de recursos, y en la participación ciudadana. Desde el punto de vista de la producción habría que aumentar el peso de las energías renovables y reducir el consumo de energía de forma escalonada. Es por ello que una de las propuestas que se están realizando en varios municipios sea la de crear operadores eléctricos municipales.

Enpresa publiko hori sortuz, zerbitzua hobetuko litzateke, kontsumo txikiagoko energia-kultura sustatuko litzateke herritarren artean eta jatorri berriztagarriko elektrizitatea eskainiko litzateke. Handizkako merkatu elektrikoaren logika merkantilista tradizionalaren aurrean, udal-merkaturatzaile propioa izateak abantaila ekonomiko ugari eskaintzen dizkio biztanleriari, eta esan beharrik ez dago urrats erabakigarria izango litzatekeela klima-aldaketaren aurkako borrokan.

Mediante la creación de dicha empresa pública se mejoraría el servicio, se promovería una cultura de consumo más bajo de energía entre la ciudadanía y se ofrecería electricidad de procedencia renovable. Frentes a la lógica mercantilista tradicional del mercado eléctrico al por mayor, disponer de una comercializadora municipal ofrece varias ventajas económicas a la ciudadanía, además de que, evidentemente, se trataría de un paso decisivo en la lucha contra el cambio climático.

Hau guztia aintzat hartutik, honakoa da Getxoko Udalbatzak onartzen duen akordioa:

Tomando en cuenta todo ello, el Pleno del Ayuntamiento de Getxo aprueba el siguiente acuerdo:

1. Energiaren udal komertzializatzaile bat sortzeari buruzko azterketa bat egitea

1. Realizar un estudio sobre la creación de una comercializadora de energía municipal.

2. Legegintzaldi hau amaitu baino lehen energia-operadore bat eratzea, %100 energia berriztagarriaren ekoizpenean eta banaketan parte hartzeko.

2. Crear un operador de energía previamente a la finalización de la presente legislatura, en aras de tomar parte en la producción de energía %100 renovable y en su distribución.

3. Komertzializatzaile horrek energia emango zien Udalari berari eta haren mendeko azpiegitura eta zerbitzu guztiei, baita Getxoko herritarrei ere, batez ere pobrezia energetikoa deiturikoa pairatzen dutenei.

3. Dicha comercializadora proveería energía al propio Ayuntamiento y a toda la infraestructura y todos los servicios que depende de éste, así como a la ciudadanía de Getxo, en especial a aquellas personas que sufren lo que se denomina pobreza energética.



Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/02/25 Fecha: 25/02/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/02/26 Fecha: 26/02/2021

Getxo UDALA · AYUNTAMIENTO
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/02/25 Fecha: 25/02/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/02/26 Fecha: 26/02/2021

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**
Ibon Rodríguez
Carolina Uribe
Carmen Díaz
Gonzalo Zorrilli-Lequerica
Alvaro Gonzlález

**PROPOSAMENAREN BOZKETA/VOTACIÓN PROPUESTA**
BAI/SI: 6 (EH Bildu, Elkarrekin Podemos)
EZ/NO: 19 (PNV, PP, PSE-EE)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN:

**12.- ELKARREKIN PODEMOS UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: COVID-19AREN ONDORIOZ SEKTOREAK IXTEKOTAN BEREHALA JARDUTEKO KONPROMISOAREN ALDE.**

Gehiengoz, honako mozio hau onartu da:

Urtebete daramagu COVID-19 gaitzaren ondorioz pandemia global batean murgilduta. Une hauetan, "hirugarren olatua" delakoa etengabe ari da hazten, gure udalerrietan egunez egun pilatzen ari diren kutsatzeen ondorioz.

Beste behin, ostalaritzaren eta merkataritzaren sektoreak izango dira kaltetuenak, gero eta gertuago baititugu murrizketa zorrotzagoak, zeinen ondorioz sektore horiek itxi egingo diren, pertsonen arteko aisialdiko kontaktuak, hau da, lantokitik kanpokoak, mugatzeko asmoz.

2020an ezarritako etxeko konfinamenduan zehar ikusi genuen Getxoko Udalak berandu jokatu zuela dekretu bidez ixtera behartuak izan ziren sektoreei erreskate-neurriak emateko orduan. Horren ostean, azaroan, Osoko Bilkuren areto honetan bertan, ostalaritza berriz ere dekretu

**12.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN PODEMOS S/COMPROMISO DE ACCIÓN INMEDIATA EN CASO DE CIERRE DE SECTORES POR COVID19.**

Por mayoría se aprueba la siguiente moción:

Hace casi un año que nos vemos inmersas en una pandemia mundial por la COVID19. En estos momentos, nos encontramos en un ascenso de la llamada 'tercera ola' por la cantidad de contagios que se van acumulando día a día en nuestros municipios.

De nuevo, vemos como los sectores más afectados van a ser el comercio y la hostelería, dado que se acercan unas restricciones más severas que conllevarán al cierre de los mismos para limitar el contacto entre las personas en su horario de ocio, es decir, fuera del lugar de trabajo.

Ya vimos como durante el confinamiento domiciliario que sucedió en 2020, el Ayuntamiento de Getxo actuó tarde a la hora de tomar medidas de rescate para los sectores que se veían obligados a cerrar por decreto. Tras esto, en noviembre, en este mismo salón de Plenos con la hostelería

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/02/25 Fecha: 25/02/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/02/26 Fecha: 26/02/2021

bidez itxita zegoenean, ukatu egin ziguten beste udalerri batzuetan hartzen ari ziren neurriak hartzeko unea zenik, hala nola sektoreari zuzendutako laguntzak. Egun batzuk geroago (beste behin ere, berandu), jakinarazi ziguten ostalaritzari zuzendutako dirulaguntzak emateko oinarri berri batzuk prestatzen ari zirela.

cerrada de nuevo por decreto, se nos negó que fuera el momento de tomar medidas que en otros municipios ya estaban poniendo en marcha, como las ayudas directas al sector. Unos días más tarde, de nuevo con retraso, nos anunciaban que estaban preparando unas bases nuevas para ayudas directas dirigidas para la hostelería.

Elkarrekin Getxok uste du laster beste itxialdi bat izango dugula Getxon, gero eta kutsatze gehiago izaten ari garelako, eta itxialdi horrek gure ehun ekonomikoa eta komertziala kaltetuko ditu. Beste behin ere ostalaritza ixteko arriskuan dela uste dugu (osorik ez bada, zati handi batean eten beharko du jarduera), hortaz, babesgabetasun egoera horretan daudenak eta lantokia ixteko arriskua dutenak ezin ditugu berriro bakarrik utzi.

Desde Elkarrekin Getxo vemos claramente que este cierre se acerca a Getxo también por el incremento gradual de los contagios, y que esto va a afectar a nuestro tejido comercial y económico. Y entendemos que, nuevamente, la hostelería corre peligro de cerrar, sino al completo, gran parte de su actividad y no podemos dejar de nuevo en la estacada a quien se vea en semejante situación de desamparo y riesgo de cierre de su centro de trabajo.

Hori dela eta, mozio honen bidez, aurreikuspena eta konpromisoa eskatzen diogu gobernu-taldeari eta udalbatza osoari; hartara, neurri zorrotzagoak hartzea edo ostalaritza eta beste sektore batzuk ixtea dakarren beste itxialdi perimetral bat ezartzekotan, BEREHALAKO neurriak har daitezen, zuzeneko laguntzak eta irtenbideak lehenbailehen eskainiz, inor ere atzean utzi gabe eta dagoeneko hartu diren neurrien eredua jarraituz, neurriok eraginkorrak izan direla egiaztatu baita.

Por eso, a través de esta moción, solicitamos previsión y compromiso por parte del Equipo de Gobierno y de toda la corporación, para que, en caso de que exista un nuevo cierre perimetral que conlleve medidas más restrictivas o cierre para la hostelería y otros sectores, se tomen medidas de forma INMEDIATA, dando soluciones y ayudas directas en el menor plazo de tiempo posible sin dejar a nadie atrás y tomando como ejemplo las medidas que ya se han llevado a cabo, teniendo en cuenta la eficacia demostrada de las mismas.

Horregatik, Getxoko Udaleko osoko bilkurari honako ERABAKI-PROPOSAMEN HAU aurkezten diogu:

Por todo lo anterior, elevamos al Pleno del Ayuntamiento de Getxo la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

1. Getxoko Udalak konpromiso irmoa hartzen du hartu beharreko neurriak berehala hartzeko, bai eta zuzeneko dirulaguntzak emateko ere, neurri zorrotzagoak ezartzea dakarren dekretu baten ondorioz kalteak jasaten

1. El Ayuntamiento de Getxo muestra su firme compromiso de poner en marcha de forma inmediata las medidas necesarias, así como ayudas directas, para aquellos sectores que se vean afectados por el decreto de

dituzten sektoreentzat; horrela, inor ere atzean ez uzteko eta berandu ez jarduteko.

medidas más severas para no dejar a nadie atrás y evitar una actuación tardía.

2. Eusko Jaurlaritzak dekretuz agintzen dituen eta gure udalerriari eragiten dioten neurri berrien jakitun izan bezain laster, Getxoko Udalak Enpresen Tokiko Foroa bilduko du berehala, neurriok foroarekin partekatzeko eta foro horretan ordezkatuta dauden sektoreekin eta kolektiboekin batera neurri horien inguruan lan egiteko.

2. El Ayuntamiento de Getxo reunirá al Foro Local de empresas de forma inmediata en cuanto se conozcan nuevas medidas decretadas desde Gobierno Vasco que afecten a nuestro municipio para poner en común y trabajar lo antes posible estas medidas junto a los sectores y colectivos que en él están representados.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Carolina Uribe
Gonzalo Ayo
Ibon Rodríguez
Eduardo Andrade
Iñigo Urkitza

**PROPOSAMENAREN BOZKETA/VOTACIÓN PROPUESTA**

BAI/SI: 11 (PP, EH Bildu, Elkarrekin Podemos)
EZ/NO:
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 14 (PNV, PSE-EE)

**13.- ELKARREKIN PODEMOS UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: TARAJALEN ALDEKO DUINTASUNAREN MARTXEKIN BAT EGITEA.**

**13.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN PODEMOS S/ LA ADHESIÓN A LAS MARCHAS DE LA DIGNIDAD POR TARAJAL.**

Gehiengoz, honako mozio hau onartu da:

Por mayoría se aprueba la siguiente moción:

Duela zazpi urte, oraindik zigortua izan ez den gertakari historiko bat jazo zen. Gutxienez hamalau pertsona hil ziren 2014ko otsailaren 6an Tarajalgo hondartzan. Itota hil ziren Maroko eta Ceuta hiri autonomoa banatzen dituen kai-muturra igerian igarotzen ari zirenean, Espainiara immigrante gisa sartzeko asmoz. Heriotza horien ondorioz, Guardia Zibilaren mugako operatiboaren jarduketa eztabaidagai izan da, are gehiago Espainiako Gobernuak, orduan Mariano Rajoy

Hace 7 años, tuvo lugar un suceso histórico que aún continúa impune. Al menos 14 personas fallecieron el 6 de febrero de 2014 en la playa del Tarajal, ahogadas mientras trataban de eludir a nado el dique que separa Marruecos de la ciudad autónoma de Ceuta para entrar en España como inmigrantes irregulares. A causa de estos fallecimientos, la actuación del operativo fronterizo de la Guardia Civil ha sido objeto de controversia, aun cuando el Gobierno de España,



Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/02/25 Fecha: 25/02/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/02/26 Fecha: 26/02/2021

Getxo UDALA • AYUNTAMIENTO
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/02/25 Fecha: 25/02/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/02/26 Fecha: 26/02/2021

presidente zela eta Jorge Fernández Díaz Barne Arazoetako ministro zela, agenteen jarduketa babestu zutenean.

entonces presidido por Mariano Rajoy y con Jorge Fernández Díaz como ministro del Interior, respaldó la intervención de los agentes.

Hamabost biktima horiek Saharaz hegoaldetik etorritako 200 eta 300 pertsona inguruko talde baten parte ziren. Espainiako kostaldera iristeko asmoz igerian ari zirela, Guardia Zibilaren 56 agentek gomazko 145 bala eta okultazioko bost ke poto jaurti zizkieten, taldea sakabanatzeko eta saiakera eragozteko helburuarekin. 23 immigrantek Ceutara iristea lortu zuten, baina sarbidea ukatu zieten eta, berehala, Marokoko agintariei entregatuak izan ziren — «berotan eginiko itzulketak» gauzatuz—.

Las 15 víctimas formaban parte de un grupo de entre 200 y 300 personas que, procedentes del África subsahariana, intentaban alcanzar nadando las costas españolas, cuando un operativo de 56 agentes de la Guardia Civil descargó sobre ellos 145 balas de goma y cinco botes de humo de ocultación, con el objetivo de frustrar la tentativa y dispersarlos. 23 inmigrantes lograron llegar a la playa de Ceuta, pero fueron rechazados y entregados de inmediato a las autoridades marroquíes –en lo que se conoce como «devolución en caliente»–, que los reclamaban.

Espainiako segurtasun indarrek pertsona horien heriotzan izandako inplikazioa justiziaren eskutan dago. Ceutako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 6. Epaitegiak hamasei agente inputatu zituen zuhurtziagabekeriazko giza hilketa eta lesioengatik; horien artean kapitain bat, teniente bat eta sarjentu bat zeuden. Kasua artxibatua izan zen 2015eko urrian, María del Carmen Serván epailearen aginduz, zeinak adierazi baitzuen ezerk ez zuela iradokitzen materiala bidegabeki erabili zenik. Gobernuz kanpoko hiru erakundek (Coordinadora de Barrios, Comisión Española de Ayuda al Refugiado eta Observatori DESC) apelazio-errekurtso bat aurkeztu zuten, ikerketa sakonago bat egin zedin eskatuz. 2017ko urtarrilean, gertakariak jazo eta hiru urtera, Ceutako Auzitegiak prozesua berriro ireki zedin agindu zuen, adostutako diligentzietako batzuk gauzatu ez zirelako, bereziki, Marokori zegozkionak.

La implicación de las fuerzas de seguridad españolas en la muerte de aquellas personas está en manos de la justicia. El Juzgado de Primera Instancia e Instrucción nº 6 de Ceuta imputó por delitos de homicidio imprudente y lesiones a 16 agentes, entre los cuales había un capitán, un teniente y un sargento. El caso se archivó en octubre de 2015 por orden de la jueza María del Carmen Serván, que afirmó que nada apuntaba a un uso inadecuado del material. Las oenegés Coordinadora de Barrios, Comisión Española de Ayuda al Refugiado y Observatori DESC presentaron un recurso de apelación pidiendo una investigación más exhaustiva. En enero de 2017, tres años después de los hechos, la Audiencia de Ceuta ordenó la reapertura del proceso porque algunas de las diligencias acordadas no habían sido practicadas, en particular las que correspondían a Marruecos.

Hori dela eta, kolektibo batzuek Duintasunaren aldeko Martxak

Por estos hechos, diferentes colectivos se están uniendo a las Marchas de la

Getxo UDALA · AYUNTAMIENTO
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/02/25 Fecha: 25/02/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/02/26 Fecha: 26/02/2021

antolatuko dituzte otsailaren 5ean eta 6an. Ekimen horren bidez, gertatutakoa ikusarazi eta 2014an Tarajalen hil ziren gutxienez 14 pertsona horientzako justizia eskatuko da.

Dignidad que tendrán lugar los días 5 y 6 de Febrero para visibilizar este acontecimiento y reclamar que se haga justicia por estas más de 14 personas fallecidas en Tarajal en 2014.

Horregatik, Getxoko Udaleko osoko bilkurari honako ERABAKI-PROPOSAMEN HAU aurkezten diogu:

Por todo lo anterior, elevamos al Pleno del Ayuntamiento de Getxo la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

1. Getxoko Udalak kezka agertzen du orain dela zazpi urte Tarajalen gertatu zenagatik eta gertakari horiek salatzen ditu.

1. El Ayuntamiento de Getxo muestra su preocupación por lo sucedido en Tarajal hace 7 años, expresando su denuncia por lo ocurrido.

2. Getxoko Udalak mugimendu sozialek deitu dituzten mobilizazioak babesten ditu eta Tarajalen aldeko Duintasunaren Martxetan parte hartzeko deia egiten du, indarrean dauden segurtasun neurriak errespetatuz.

2. El Ayuntamiento de Getxo apoya las movilizaciones convocadas por los movimientos sociales y llama a participar en las Marchas por la Dignidad a favor del Tarajal, respetando las medidas sanitarias vigentes.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Carolina Uribe
Carmen Díaz
Itxaso Maseda
Gonzalo Zorrilla-Lequerica
Ignacio Uriarte

**PROPOSAMENAREN BOZKETA/VOTACIÓN PROPUESTA**

BAI/SI: 9 (EH Bildu, PSE-EE, Elkarrekin Podemos)
EZ/NO:
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 16 (PNV, PP)

**14.- JULENE SUSANA SAMUELEK ETA BESTE BATZUEK AURKEZTUTAKO MOZIOA: IKASTEKO LIBURUTEGI ETA UDAL ESPAZIO PUBLIKOAK IREKI.**

**14.- MOCIÓN PRESENTADA POR JULENE SUSANA SAMUEL Y OTROS S/ABRIR BIBLIOTECAS Y ESPACIOS PÚBLICOS MUNICIPALES PARA ESTUDIAR.**

Gehiengoz, honako mozio hau atzera bota da:

Por mayoría se rechaza la siguiente moción:

Covid-19 egoeran Getxoko liburutegietako ordutegiak murriztu eta beste ikasteko espazio batzuk itxi ditu udalak. Sinadura bilketa honen bitartez

Durante la situación del covid-19, el Ayuntamiento ha reducido los horarios de las bibliotecas y ha cerrado otros espacios para estudiar. Mediante la

Getxo UDALA • AYUNTAMIENTO
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/02/25 Fecha: 25/02/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/02/26 Fecha: 26/02/2021

Getxoko liburutegiak eta ikasteko lekuak irekitzeko eskatzen diogu Getxoko udalari, batez ere azterketa garaian irtenbide bat eman diezaion herritarrok bizi dugun arazo honi. Beharrezkoa izatekotan honetarako udal espazio publikoak irekitzea exigitzen dugu. Gazteon Amarauna Algortako gazte asanbladaren dinamika honen baitan.

presente recogida de firmas solicitamos al Ayuntamiento de Getxo la apertura de bibliotecas y lugares de estudio, en aras a solucionar el problema que vivimos los y las ciudadanos, especialmente en época de exámenes. Exigimos la apertura de espacios públicos municipales si fuera necesario. En el marco de la Asamblea Juvenil de Algorta Gazteon Amarauna se presenta la moción.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Julene Susana Samuel
Paula Amieva
Gonzalo Ayo
Nerea Guijarrubia
Gonzalo Zorrilla-Lequerica
Alvaro González

**PROPOSAMENAREN BOZKETA/VOTACIÓN PROPUESTA**

BAI/SI: 11 (PP, EH Bildu, Elkarrekin Podemos)
EZ/NO: 14 (PNV, PSE-EE)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN:

**GALDE-ESKEAK**

Nerea Guijarrubiak gobernu-taldeari eskatu dio arindu dezala gizarte-larrialdietarako laguntzen emakida, eta Alkateak erantzun egin dio, gobernu-taldearen konpromisoen eta jardueren berri emanez.

**RUEGOS Y PREGUNTAS**

Nerea Guijarrubia pide al equipo de gobierno que se agilice la concesión de las ayudas de emergencia social a lo que la Alcaldesa responde dando cuenta de los compromisos y actuaciones del equipo de gobierno.

**HERRITARREN GALDERAK**

Idazkari nagusiak X galdera irakurri ditu, eta alkateak erantzun ditu. Galdera hauek egin dituzte:

Luciano Cuchí San Millánek, erosketa-erregimeneko etxebizitza babestuak sustatzeko eta plastikozko ontziak tratatzeko eta birziklatzeko arrazoiei buruz Getxon.

Begoña Undabarrena Alvarezek,

**PREGUNTAS DE LA CIUDADANÍA**

El Secretario General da lectura a 3 preguntas, que son respondidas por la Alcaldesa, formuladas por:

Luciano Cuchí San Millán sobre las razones de la promoción de viviendas protegidas en régimen de compra y sobre el tratamiento y reciclaje de los envases de plástico en Getxo

Begoña Undabarrena Alvarez sobre el

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/02/25 Fecha: 25/02/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/02/26 Fecha: 26/02/2021

gizarte-larrialdietarako laguntzak eskatzeko atzerapenari buruzkoa.

retraso en relación a su solicitud de ayudas de emergencia social.

Jesús Urrutiak, Andra Mari Gure Lurra elkartearen izenean, HAPOren berrikuspena idatzi duen taldearekin eta udal arduradunekin bilera bat egiteari buruz.

Jesús Urrutia en representación de la asociación Andra Mari Gure Lurra sobre la concesión de una reunión con los responsables municipales y el equipo redactor de la revisión del PGOU.

Eta beste aztergairik ez zegoenez, Alkateak bilera amaitutzat eman zuen egun horretako 13:30ean.

Y no habiendo otros asuntos que tratar, la Alcaldesa levantó la sesión siendo las 13 horas y 30 minutos de este día.

Saio honen laburpena transkribatu da, eta bideo-akta sistema baten bidez audobisual euskarrian egindako grabazioaren osotasuna bermatzen duen ondorengo aztarna elektroknikoa ***SHA512 - 01405e9dad022cd70f8254956f15b218623420a20966a13dc4d10d0171e895f6fb34599 e5d08c13582dfcfe3e3d709b08b9c85e6578ea2e38fc63c70d57ce064***, nik Idazkari Nagusiak eta Alkateak nirekin sinatuz, horren guztiaren fede ematen dut.

De esta sesión, cuyo extracto se ha transcrito, y de la grabación en soporte audovisual realizada mediante un sistema de video-acta, con la siguiente huella electrónica que garantiza la integridad de la grabación: ***SHA512 - 01405e9dad022cd70f8254956f15b218623420a20966a13dc4d10d0171e895f6fb34599 e5d08c13582dfcfe3e3d709b08b9c85e6578ea2e38fc63c70d57ce064,*** como Secretario General y firmando la Alcaldesa en unión mía, doy fe.

*Ikus-entzunezko artxiboa Getxoko Udalaren bideotekara joz kontsulta daiteke, esteka honetan:*

*El archivo audiovisual puede consultarse accediendo a la videoteca del ayuntamiento de Getxo en el siguiente enlace:*

*http://getxo.seneca.tv/s/wd5VHEO8TsTm7FVOCqXh4FjCUZb96vMp*